

Haizeen izendapenak ahozko hizkeran

Gotzon Aurrekoetxea

► **To cite this version:**

Gotzon Aurrekoetxea. Haizeen izendapenak ahozko hizkeran. Aurrekoetxea G., Etxebarria P., Ormaetxea Tx., Salaberri P. (argi.) - Udako Euskal Unibertsitatea, pp.93-107, 2000. <artxibo-00071267>

HAL Id: artxibo-00071267

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00071267>

Submitted on 23 May 2006

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

HAIZEEN IZENDAPENAK AHOZKO HIZKERAN

G. Aurrekoetxea
EHU

Euskal Herriko Hizkuntz Atlasasean (EHHA) jasotako datuak baliatuz haizeen izendapena hartu dugu gaitzat ikerketa honetan.

Ezaguna da haize mota hauek izendatzeko forma desberdinak ditugula euskaldunak. Izendapen horiek motibazio desberdinek eraginik sortu dira: puntu kardinalei begiraturaz maizen, orografia kontuan hartuz beste batzuetan, toponimiaren inguruan besteetan...

Hauetako batzuk finkoak badira ere, erreferentzia argia eta finkoa badute ere, beste batzuk tokian tokira egokitzen direla begi bistan dago, unean uneko erreferentzia bildu dute.

Izen usuenak

Ikus dezagun lehenik zeintzuk diren euskararen eremuan nagusiki erabiltzen diren haize-izenak:

a) 'Ipar haizea' izendatzeko ondokoak bildu dira:

- ip(h)ar aide/haize: 104 herritan (22/36 B., 1 A., 33/36 G., 24/27 N., 10/15 L., 8/18 NB., 6/12 Z.),
- norte(ko) (h)haize: 65 aldiz (22 B., 13 G., 2 N., 12 L., 11 NB., 5 Z.),
- beheko haize: 29 aldiz (8 B., 5 G., 2 N., 2 L., 8 NB., 4 Z.),
- azpiko haize: 4 (N.),
- itsas (h)haize: 5 aldiz (3 B., 1 G., 1 NB.),
- haize gorria: 5 (1 B., 4 Z.),
- kanpo haize: 3 (Elantxobe, Lemoiz, Ondarroa),
- goiko haize: 2 (1 B., 1 L.),
- Zaldibar haize: 1 (B.),
- negu haize: 1 (Dima),
- herriko haize: Laukiz
- erreka haize: Mungia,
- napar haize: Aramaio
- Urkiola haize: Aramaio,
- kallerna haize: Andoain,
- frants ipar/ haize: Beizama, Alkotz
- txingor haize: Legazpi,
- aleman haize: Leintz-Gatzaga,
- haize beltz: 4 (1 L., 3 Z.),

- iguzki haize: Azkainen,
- Lapurdi haize: Ezterenzubi,
- kharrun aide: Altzürükü
- aitzin haize: Domintxine
- basa haize: Pagola,
- behor haize: Urdiñarbe

ipar aize, iper aize, iper, ipar, ifer, ifar, ifer aize, ifar aize, iphar haize, nortaize, norte, norteko aize, aizenorte, aizegorri, zaldibar aize, beko aize, goiko aize, norteaize, neguaize, kanpaize, erriko aize, itxasoko aize, erreka aize, napar, urkiolaize, naparregoi, kallernaize, itsas aize, frantsipar, txingor aize, aleman aize, frans aize, azpiko aize, azpi aize, aize beltz, iguzki haize, gorako aize, peko aire, bendunor, lapurdi haize, aide gorria, kharun aide, haize beltz, aitzin aize, basa haize, behor aize (askotan haize-ren ordeztu aire ere agertzen da).

b) 'Hego haizea' izendatzeko berriz:

- hego haize: 130 herritan (23/ 36 B., 1 A., 35/36 G., 26/27 N., 15/15 L., 18/18 BN., 12/12 Z.),
- herriko haize: 18 herritan (16 B., 2 G.)
- goiko haize: 11 adiz (8 B., 2 G., 1 L.),
- haize epel: 10 aldiz (9 B., 1 G.),
- beheko haize: 4 (Zollo, Jaurrieta, Hendaia, Bidarra),
- ahüñ haize: 4 (Altzai, Larraine, Muntori, Urdiñarbe)
- sur(reko haize): 4 (Zaratamo, Pasaia, Zestoa, Zugarramurdi),
- haize erre: 3 (Lemoa, Mungia, Uribe-Etxebarri),
- haize siku: 2 (Berriz, Sondika),
- haize eihar: Bardoze,
- aire/haize beltz: 2 (Ezterenzubi, Urdiñarbe),
- napar haize: Dima,
- barruko haize: Elantxobe,
- nabarniz haize: Errigoiti,
- enbra haize: Zeberio,
- haize gorri: Arrangoitze,
- iguzki haize: Sara,
- aitzin haize: Arboti,
- borthü handitiko aide: Altzürükü
- españako haize: Eskiula,
- mahumet: Larraine,
- zütezta: Muntori
- anie: Muntori
- behorbiltzaile: Muntori

egaize, erriko aize, eguko aize, aizesiku, egoaize, ego, napar aize, goiko aize, errikaize, barruko aize, nabarniz aize, aizepel, aizerre, sur, beko aize, egoi, ego, surreko aize, peko aize, aize egoa, hego, hegoaize, sur, surrekoa, aize gorri, haize eihar, iduzki aize, aintzin aire, aitzin aize, hegoxuri, aire beltza, ahüñaize, borthü handiko aide, españako haize, basahegua, mahumet, sütezta, ahüñe, anie, bohorbiltzale,

c) 'Ekialdeko haizea' rentzat ondokoak bildu dira:

- iguzki haize: 52 herritan (6 G., 23/26 N., 11/14 L., 11/15 NB., 1 Z.),
- napar haize (napar, napar ego(e), napar aixe, napar axe, nafar axe, napar aize): 22 herritan jaso da (12 B., 10 G.),
- ipar haize (iperbaltz, iper gorri, par fresko): 17 guztira (12 B., 2 G., 3 L.),
- haize gorri: 9 guztira (3 G., 4 N., 2 Z.),
- frantsi haize: 8 herritan (5 B., 1 G., 2 N.),
- esteko haize: 7 herritan (3 B: Ber, Elan, Ond), 3 G (Get, Pas, Zes), 1 L (Donib.),
- aintzin aire: 7 herritan (Donibane-L., Bard, Arb, Arru, Garruze, Ist, Domint),
- beheko haize: 5 herritan (Mañ, Zol, Gamarte, Barkoxe, Domintxine),
- goiko haize: 2 herritan (U-Et, Etxarri),
- orma haize: 4-tan: Erratzu, Lekaroz, Goizueta, Hendaia,
- ahüña haize: 4 herritan (Altzürükü, Larraine, Muntori, Pagola),
- hegoxuri: 3-tan (Azkaine, Uharte-G., Altzürükü),
- eki aide/haize: 2 (Ürrüstoi, Hazparne),
- norte: 2 (1 G., 1 N.),
- herriko haize: 2 B (Erri, Larrabetzu),
- labeda haize: 2 heritan (Barkoxe, Sohüta),
- pafin haize: Dima
- enbra haize: Errigoiti
- ipiñaldeko: Getxo
- sorkaldeko haize: M-Etx,
- nabarriz haize: Mendata
- larrabetzu haize: U-Etx
- elgeta haize: Arrasate
- araba egoi: Ataun
- ataixe: Zaratamo
- errekaire: Zollo
- antxier: Aramaio
- garaisuma haize: Amezketeta
- gaizume: Oresa
- gaizemaize: Tolosa
- arraize: Beasain
- itsasaldeko: Lasarte
- arraza zakur: Zegama
- zehar haize: Beruete
- gallego haize: Gaintza
- erramu haize: Goizueta
- sanmigel haize: Urdiain
- suresta: Zugarramurdi
- xubero haize: Itsasu
- mendeala: Senpere
- izar haize: Aldude
- osots haize: Bidarra
- haize mehe: Eskiula
- idorra: Eskiula
- kharru haize: Urdiñarbe

iper, iper aize, lesteke aize, napar egoi, frantsi aize, pafin aize, ifar aize, erriko aize, enbr aize, napar aize, iperbaltz, iper aize, nafar aize, beko aize, sortaldeko aize, nabariz aize, goiko aize, larrabetzu aize, aitaize, ipergorri, nafar aize, errekaire, antzier, eguzki aize, sortalde, aize gorri, gaisuma aize, elgetaize, araba egoi, arraize, frantsiipar, itsalaldekoa, napar egoe, gaizume, arrazazakur, esteko aize, iruzki aize, zear aize, ormaize, gallego aize, orma aize, erramu aize, prantzes aize, san Migel aize, suresta, hegoxuri, aintzin aire, aintzineko aize, ekiaize, xubero aize, mendeala, izar aize, osots haize, peko aize, ahün aize, labeda, haize labeda, haize mehe, idorra, erdi ahün aide, erdi iphar, aide gorria, esküin haize, kharruñ aize, ehizeikiko aide

d) 'Mendebaldeko haizea' izendatzeko, azkenik:

- mendebal (aize): 55 guztira /15/34 B, 18/33 G, 5/27 N, 9/13 L, 8/18 B N eta 0/12 Z),
- gallegu (aize) : 39 (Bizkaian 25/34, Gipuzkoan 12/33 eta Nafarroan 1/27),
- itsas aize (aire): 26 guztira (1 B., 2 G., 3 N., 5 L., 10 BN., 5 Z.),
- ze(i)har aize: 22 aldiz (0 B., 2 G., 14 N., 0 L., 3 BN., 3 Z.),
- gaztela aize: 14, denak Nafarroan,
- haize beltz: 11 (1 N., 1 L., 2 BN., 7 Z.),
- beko/azpiko/bajuko aize: 9 aldiz (1 B., 2 G., 2 N., 2 L., 1 BN., 1 Z.),
- manex (aize): 8 adiz, denak Zuberoan),
- oesteko aize /luestekhaize): 6 aldiz (3 B., 2 G., 0 N., 0 L., 0 BN., 1 Z.),
- enbata: 5 (denak Lapurdin),
- amillan: 2 (1 A., 1 G.: Aramaio eta Oñati),
- euri aize: 3 (1 B., 2 Z.),
- aldaize / aldagoi: 3 G.,
- gorbeiaize: 2 G.: Oñati, Araotz,
- norde (aize): 2 (1 B: Zeanuri, G.: Eibar),
- aize biur: 1 (B.: Berriz),
- goiko aize: 1, Bizkaian,
- sartalde: 1 (G.),
- arabero: 1 G.: Oresa,
- galgoi aize: 1 G.: Zestoa,
- samiel aize: 1 N.: Etxaleku,
- orio aize: 1 N: Goizueta,
- mandio aize: 1 N: Goizueta,
- kabreton aize: 1 L.: Makea,
- aize gaizto: 1 BN: Arboti,
- basa haize: 1 BN: Jutsi,
- galerna: 1 G.: Oiartzun,
- tenpesta haize: 1 BN: Lartzabale,
- ahüski aide: 1 BN: Altzai,
- baionako aize: 1 Z.: Muntori,
- exker haize: 1 Z.: Santa Grazi

Izenok sailkatzean motibazioaren arabera egin genitzake: izendapena, erreferentzia, aldia edo denbora,...

1. Izendapena

Izendapenon tipologia eginez multzo desberdinak egin genitzake: izendapen kardinala, orografikoa, toponimikoa, bestelakoa.

1.1. Izendapen kardinala. Erreferentzia finkoa duten izenak dira hauek. Nahinon egonik ere erraz ulertzen diren haize motak dira eta beti bera izaten dira.

Lau izendapen nagusi bereiz daitezke, puntu kardinalak kontuan hartuz:

- *Ipar, ifer, iparraize, ipharraize, ifarraxe, iparreko aixe, iparraldeko aize; norte, norte(ko) aize, nortaxe, nortaxe, axenorte*
- *hegoa, hegoaize, hegoaldeko aize;*
- *ekia, ekiaize, eguzkiaize;*
- *mendebala, mendebalaize, mendebaldeko aize.*

Lau multzo nagusi hauen nahastarekin beste haize mota batzuk ere ezagunak dira:

- *iparrekialdeko aize,*
- *hegomendebaldeko aize;*
- ...

1.2. Izendapen orografikoa. Tokian tokiko orografiari loturik agertzen den haize-izena dugu hau. Gehienetan bi haize mota agertzen zaizkigu: *goiko aize* eta *beheko aize*.

Haize mota hauek ez dute norabide zehatzik: leku edo herri batzuetan norabide bat izango dute, baina beste batzuetan beste bat ere izan dezakete. Dena da herri edo ingurune horretako orografiaren arabera. Horrela *goiko aize*, adibidez, batean Hegoaldekoa den bitartean beste batean Iparraldekoa izan daiteke. Orobat, *beko aize* izenaren kasuan.

1.3. Izendapen toponimikoa. Toponimia oinarritzat hartuta ere eraiki dira haize izenak. Beraz, haizea nondik datorren guregana lurralde hartako izena hartzen du.

Horrela sortu dira *gallegu aize, gaztela aize, saldiarraixe, urkiolaxe, napar, ...* *Gaztela aize* Gaztelatik heldu den haizea eta, beraz, hegoaldekoa izango dugu, *gallegu aize* Galiziatik datorkiguna mendebaldekoa den bezalaxe.

Ez dira izendapen asko euskararen kasuan, egia esan, baina esanguratsuak. Hain zuzen ere, haize mota garrantzitsuenak, duten eragina kontuan hartuz, direlako. Batak euria dakarrelako eta besteak eguraldi epel edo beroa.

1.4. Aldi edo eguraldiaren arabeko izendapena. Gertatzen da, eta behin baino gehiagotan, norabide bereko haizean izen desberdinez bereiztea.

Horixe gertatzen da, adibidez, *norteko aizea* eta *iperra* haize moten artean leku batzuetan: lehena batez ere neguko haize gogor hotza da; bigarrena udako edo denbora bero edo sargori denean iparraldetik etortzen den haize fin, leun eta goxoa.

Kasu honetan izendapen desberdina sortzean noiz gertatzen den eta haizearen ezaugarriak aintzat hartu dira.

1.5. Bestelakoak. Badira beste izendapen batzuk ere gure herrietan erabiltzen direnak. Hala nola *erriko aize*, *erreka aize*...

2. Erreferentzia

Erreferenziari kasu eginez izendapen batzuk zehatzak diren bitartean, beste batzuen esanahia zehazte orduan tokian tokiko esanahia hartzen dute. Ez dute, oro har, erreferentzia bakarra.

2.1. Erreferentzia zehatza

Erreferentzia zehatza dutenen artean kokatzen dira puntu kardinalaren izena hartzen dutenak eta izendapen toponimikoa hartzen dutenak. Hauek beti eta ezagutzen diren leku guztietan erreferentzia bakarra dute, eta beti bera.

Horien artean ditugu, batetik, *iparraize*, *iparraldeko aize*, *ego aize*... eta, bestetik, *gaztela aize*, *gallegu aize*...

2.2. Tokian tokiko erreferentzia

Tokian tokiko erreferentzia dute beste izen batzuk. Hauek ezin dira hedatu gainontzeko herrietara, agerpen bakoitzean zehaztu egin behar da-eta zein esanahi duten.

Hemen sartzen dira izendapen orografikoa eta bestelakoetan kokatu diren izen guztiak.

3. Haize motak eta lurraldeak

4. Izendapen desberdinak herri berean